

Enrike Albizu, margolaria

Zeruko Argia, 377. zk., 1970-05-24: 12.

– Nik aurrez-aurre daukadan ume, emakume edo gizon-modeloa nola margo-irudi batean bizirik erakutsi, hau da barru-barrutik sentitzen dudana mixterio-antzeko eragiña.

Hauxe esaten zidan Albizu margolari ospetsuak joan dan egunean.

Neronek ere oraintxe kezka berdiña sentitzen dut: nondik, zein ertzetatik begiratuta, zein itzen bidez, ekarriko dut artista hau ZA-ko irakurleen aurrera; zer arnesekin beteko dut nik buruan daukadan gizon eta artistaren irudi hau egitazkoa dala erakusteko?

Ementxe dago, ain xuxen, sortzaillearen izkutuko oiñarria, ta baita komunikazioaren mixterioa ere.

1

Enrike orain dala 40-ren bat urte Irunen jaioa, aritmetika ta gramatika baiño marraztea atsegiñago zitzaiolako ikastolatik iesi ibilia dala esateak zerbait adieraziko du, noski; Montes Iturrioren ardurapean zegoen (eta oraindik dagoen) Irungo Academia Municipal de Dibujora joan beharrak, eta, oraindik gehiago, naiz eta gurasoekin asarreak izan ("mutil honek ez ahal du, balioko ezer egiterik pentsatu behar!"). Valenciako Academia San Carlosera joan, lau urte ikasten pasa, gero Madrیدهko Escuela San Fernandon sartu eta ikastaroak bukatu zituala esaten ba dut (esan dudana bezala) egia da. Hauxe baita gure erriko margolari honen azaleko ixtori laburra.

Baiña nik ixtori-azal hau aurrean utsik jarriko ba nizueke, gizon-utsunea aixa igarriko zenidateke.

Azal honen mixteriozko mamia gehienetan gordea egon ohi da; Enrikeren aita-amak ezin ulertu zuten bere seme bakarraren eragiña horrelakoxea zen; sikologo batzuek diotenez: sortzeko gai egiten gaituen gure trebetasunak prezio bat eskatzen du, beste zerbait egiteko trebetasun-eza; alegia, ta esate baterako, Picasso baten marraztu ta margotzeko maixutza bere mekanitzarako izan duan gai-ezaren bizkar goratu da. Ala, Enrikek aritmetika ta gramatikarako zaletasuna aundia izan bazuan, ziur asko marrazteko eraginik ez zuan nabaituko; gurasoei obeto irudituko zitzaie, baiñan Enrike berari, okerrago; edo beintzat hori uste du gaur. Zer izango zan Enrike Albizu matematikari bezala edo kontabilitadeak eramateko lanetan? Hau iñortxok ez daki. Gu izan gindezkeanaz espekulatzen ametsetan asten bagera, ametsak egingo ditugu, baiña bizi-modu edo izaterik ez dugu mamituko. Ta gu mamiz (erra ezurrez!) egiñak izan.

– Egin duzunarekin pozik ahal zaude? –galdetu nion.

– Sortzaille bat ez da iñoiz billaketaz asetzen; bestalde, mendi gora dijoanak zenbat eta gorego igo lur gehiago ikusten duan bezala, sortzailleak ikas-leku eta bide gehiago

ikustatzen ditu; gizonok irurogei, irurogei ta amar edo larogei urte bizi ohi geran bezala milla urte biziko bagiña ere billaketak ondorio ber-bera ekarriko ligukenean nago: gizona jakitez ez da iñoiz asetzen; behar bada, jakintzak bukaerarik ez duala ikasi dualako. Etsi bai, egiten du gizonak, eta aixa zamar; baiñan jakitez ez da gizona asetzen.

2

Jakitez ez, baiña lurrez (eta lurrak aixa bukatzen dirala ikusten dualako-edo) bai, asetu ohi da gizona.

Enrike Albizu Ameriketara izena da; Alemania maiz joaten da margozki egitekoak betetzera; Parisen egona da, noski (Boursier de l'Institut Francaisek beka eskeñita); eta baita beste lurralde batzutan ere; Erroman, esate baterako, Gipuzkoako Diputazioak bekatuta. Or zear ikusi du bazterrik pranko, eta egin ditu lanak eta lagunak; nun nahi bizitzeko gai da artista trebe hau. Ala ere sorterrira itzuli da berriz; eta Ondarribiko Arkolla auzoan jaso duen "Pinpirin etxe-txalet ederrean egiña dauka kabi gozoa, ta edergarriz betea gaiñera; ortxe dauzka, baita ere, Mari Joxepa ondarribiar emaztea eta bi neska: Jone (14) emen jaioa, eta Oaia (12) Venezuelan sortua.

Gizonaren misterio izkutua hau ere; jaio geran tokira itzuli nahi, edo behar; ikusi ezin dan xibor-este batek lurrari lotuko bagindu bezelatsu.

Baiña Enrike, lurrak beste, lurrean bizi danari ere estekatua dago, batez ere arrantzaleari. Margo-irudi batean bizirik utzi balitu bezelako arrantzale-aurpegi asko geratu da, betiko-edo, Enrike Albizu dala merio; irudi hoiere aurrean jartzen danari begira geratuko zala arrantzalea, ta nolabait izketan ere asi diteke; esaten, alegia: emengo dala, lur honetako gizona, ta bere aurpegi-azala millaka aldiz ipar eta ego aizeak eta "bitxintxoak" iartua izan dala; begiak, berriz (eguzki-argiak eta euri-laiño ezeak kixkurtu dizkion begi hoiere) itsaso urdiñ eta ferdez eta laiñuz bete zaizkiola; orregatixe, estalpetuko baditu, txapel-teilla beltz hori behar-beharrezko zaiola; muga dala-ta agerian dauden begi-txinparta emetuak, ezin-besteko kontrabando usmo, eta susmo, dirala, eta ezin-besteko muga-guda ta muga-eziera bateko aspaldi-aspaldiko etzi-behar berezia ere ba dala, bai, hori dana baita izkutuko kontrabandoa, erri-kontrabando zaharra; anaiak emen, anaiak an; neke-lanetan artutako eguzki ta kresalak (eta bere andrearen esku-xaboi pikorrek ere bai, noski) eman diela berak jantzita daukan ajatutako maioi-oialari or ageri duan urdin apal eta maitekorra; indarra (joandako indarra!) atzapar aundi baiño aundituetatik ies egiña dala; Aitaren eta gurutze egiten asi eta eten gabe iraun duten esku hoietan sokek eta pitak ikutu eta irristada erreak egin dituala, bai, eta alere, edo orregatixe, esku-aurpegi hoiere latak eta garbiak daudela; eta Jaungoikozko esku txukun hoietan urtero (eta jostaketa ta promesa betegarri bakarrik) zizpak lo egin ohi dutela; irudian erakusten dituen besoak elkar lotzeko bideak gurasoengandik ikasitako errespeto-bide zaarrak dirala; ahoan eta begiradako pakean, errespetoz, eta maitasunez, millaka aldiz kendu dan gure erriko txapel beltz-txukun horretan, Guadalupeko Amak beste ainbeste aldiz eta erdi eta gehiago maitasun-begiak jarri dituala.

Or dagoz: batean Patxiku (*Tatin*), bestean Tertxero, bestean Liberato (*Miña*), urrungoan Esteban (*Exkerra*), oraingoan Beñardo, arraunlari ta patroiz azkarra ta gizona.

Bakoitzak bakarka, ta isilka, berea esana dio Enrikeri; hori, modeloak esandakoa eta Enrikek esan diotela uste izandakoa, dena, da margo-irudi hoietan bizirik eta betiko-edo, geratu dana.

Gaur (eta biar!) bizirik begira jartzen dan edonork ikusi ta senti dezake hauxe.

3

– Nola etorri zitzaizun aurpegiak eta buruak eta soiñak, alegia giza-irudiak, margotzeko gogo hori?

– Nola?... Ez dakit. Ikusten nuana marrazteko gogo bizia bezalako zerbait izan zan lehenik; berriz-sortzeko egarri goi-zalea nonbait; ikastolan igeltzuzko giza-irudiak izan ziran aurrena eta gero egitazko giza-emakumeak.

– Horri erretratua deituko ahal genioke?

– Ez, arren! nahiago dut izen hau ez erabili; argazki kutsua du-ta; argazkia mekanika bidez lortzen da, ta aurpegi bat argiak garai horretan eta segundo laurden batez ikustarazten digun bezala erakutsiko digu, beste arrastorik gabe. margo-irudia, berriz, adierazpen bat da; alegia artistaren begiaz mantxo ikusi ta ertilariaren asmo, kultura, jakintza, barne-giro ta ikasitako ofizioak batera lanean jarri ondoren sintesis arrigarri bat bezala, sor arazten duten zerbait. El Grecok eta Velazquezek eta Goiak ez zuten inola ere aurpegi bat era batean inoiz ikusiko.

Bost fotografi-makiña bata bestearen urren aurpegi baten aurrean jarri ta beste ainbeste argazki berdiñak aterako lituzteke –esan nion– bost ertilarik, berriz, oso ez-berdiñak diran bost aurpegi ikusiko lituztekela, antz-gabeak diran bost margo-irudi, hori esan nahi duzu?

– Bai.

– Baiñan –esan nion– berriz onak diran gaurko bost fotografo artzen badituzu, bakoitzak aukeratzen dituen: argi-itzal, objetibo-itxitura, paper eta kopi-oide arras ez-berdiñak diran bost argazki atera litezke; eta esan genezake, horrela, fotografoak berak ere gaiaren adierazpenak, interpretazioak, egiteko gai dirala. Zer derizkiozu?

– Alaxe da; fotografo onaren meriturikan ez dut ukatu nahi; baiña faktore guzi hoiek mekanikoak dituzu, ta nahi-ta-nahi-ez fotografo guziak bost, amar edo ogei aldagarri hoietara errenditu beharko dute; margolariak, berriz, jakinduriz, esperientziz, sentipenenez, gogoz biotzez, askoz ere konplejoagoak dira, eta etorkizunez askoz ere aberatsagoak.

4

– Teknika bidez –esan nion– Maixuetatik, batzuek besteak baiño maiteago izango zenituan ba; zeintzuk dira atsegiñen izan zaizkizunak?

– Asi nintzanean Zuloaga zitzaidan atsegiñen; erritarra zalako, ta baita argi-itzaletan indartsua iruditzen zitzaidalako ere; Riberak erakusten zidan indarra ere horrelakoa zan. Ordu ezkerotik *indar* hori erakusteko bideak bestaldera ikusten joan naiz, eta gaur

Holbein edo Dureroren marra mehean Ribera eta Zuloagaren argi-itzaletan baiño indar gehiago sumatzen dut. Margo-artean gertatzen dana literaturan gerta ohi dan ber-bera da; indarra ez dago adjetiboaren parrastatzean, eta, bestalde, askotan izen-laguna zuhurrago erabiltzeak sortzen ditu balio ta nagusi-mail berriak.

– Zuloagaren margo-ertia euskotarra iruditzen ahal zaizu? –galdetu nion.

– Zuloagaren euskotartasuna bere erti-gaiak neurtzen ba dugu, ez; baiña gizona beraren izakeraz eta bere erti-lanak gaiña-artu zezen joka zuanez, bat; margo-oial aundietan margoztera ausartu zan, eta bere margo-ertiari mailla berezi bat lortu arazi zion. Gaiñentzekoan ez, ez zuan euskotartasun berezirik zuzen eta sakonki sentitu; dakizunez, Parisen eta ango batekin ezkondu zan, eta bere izate guzia erritik kanpora begira egiña izan zen. Honek ez du esan nahi, alere, gure erriko baserriak eta baserritarrek margotzen dituan ertilaria euskotarrago danik; erti-*gaiak* berak ez du erritasunez iñor betetzen.

– Aizu, Enrike, ta margo-ertiko eskola berezirik izan ahal dugu euskotarrok?

– Ez dut uste. Eskola bat sortzeko maixutasun bat erakutsi behar da; euskotar sentitzen diran ertilariak elkarrekin lotu ahal dituan erriaganako biotz-ukituan kidesun bat eta maixutasun bat: honetarako lehenik ikastetxe bat behar genduke, ta guk ez dugu horrelakorik izan, Valenziarrak ba dute berea, San Carlosko Akademiaren inguruan sortua; Sorolla da adibide bat. Artetak egin zuenak erritasun nabarmen bat ba du, baiñan eskola bat sortu arazteko kemenik izan dunik ez da agerian geratu. Danok kanpora joan behar izan dugu. Leengora joan da; Artetak, Vazquez Diaz eta kubismoaren nolabaiteko kidesun bat izan du, baiñan gaia aukeratzeko eta sentitzeko bideak euskotarrak izan ziran. Ere askotara izan baititeke euskotar.

5

– Teknikari garrantzi aundia ematen ahal diozu?

– Teknika beharrezkoa da, noski; alere, artista baten lana ez du erabili duan teknikak salbatuko, barruan daraman eta "sendimena" deitzen dioten horren bitartez baizik. Gaur Picassoren teknika hori ikasi duten asko ikusiko duzu; rezeta hori ikastea ez bait da zailla; ala ere, Picassoren kopiiazaille hoiei bereala igarriko diezu uts-arte; azal leorra besterik ez baitira! Alere teknika beharrezkoa da; neri musika asko gustatzen zait, eta Beethoven pozik joko nuke, baiñan nola jo ez dakit.

– Ta sendimen hori nola nabaitzen duzun esateko eskatuko banizu?

– Sentitzea errazagoa da adieraztea baiño. Nola-nai, ez da askotan txepela eta ñañua dirudien itz honekin esan nahi izaten den zerutik jetxitako edo mirari antzeko zerbait; sendipena, neretzat, *zalantza* da; horixe, ziurtasun-eza, gizonaren koloka; egon-ein hau izaten da, nere esperientzian beintzat, bultzagarri, eragille.

– Zu figuratiboa-edo zera; zer derizkiozu gaurko abstrakto ta beste molde-billaketa hoietzaz?

– Barojak zioanean nago ni ere; pinturak eta musikak eman behar zutena eman dutela, egin ahal izandu dan guzia egiña dagoala, ta ziklo edo aldi hoiek itxi zirala; berria dan ezer ez dagoala sortzerik.

– Ba ote?

– Ba dira, noski, fede onez eta egiazko estutasunean billaketa leialak egiten dabiltzanak. Nik hoiek errespetatzen ditut. Alere ba dira lanean ari beharrea jostatzen dabiltzanak ere. Naiago nuke neronek azti-bide bat arkitzeko eragiñik sentituko banu; baiñan ezin dalakoan nago. Inpresionismoaren ixtoriak adierazten digunez, billaketa honetan bide ederrak egin daitezke; baiña bide hoiek lehengora datoz berriz, zikloak agintzen duan bezala. Beste jostaillu asko ari da sortzen, baiñan erti-konzeptoa txikitzen ari ote diran nago. Zer da hori? Dekorazioa, soma-bide utsa? *Gauza* puskatzen danean konta-eziñezko *ditekenak* sortzen dira; izatea, errealidadea, kaleidoskopio bezelako zerbait da; baiña nora dijoaz konta-eziñeko bidetxur hoiek?! Nik apalik adierazi nahi dizut, ez-dedala arrigarritzko biderik irekitzeko tartetik ikusten. El Grekok bere "Doctor Lafuente-ren aurpegian lortu zuan sakontasuna gaindu? Ezin leikeena iruditu zait neri beti. Muga honetara eldu diren batzuek norabait ies egin nahiez zorutzen dira. Nik nereari nortasun bat ematen badiot, pozik naiz; honek nere lana legetzen du; margo-aukera dala edo nere ikusteko bideak dirala nere lanari nortasun apur bat ematen badiot, naikoa dut.

– Margotzeko zer argi duzu nahiago?

Arratsaldeko; eguerdiko argi betea ez zait atsegin, forma guziak zapaltzen bait ditu; nere lantokiko leioak sortaldera begira dagozenez, nahiago dut arratsaldeko argi apalari itxadon; iraunkorragoa, txapalagoa ta margoak berean uzten ditu; ez ditu, besteak bezela, gezurtarazten.

– Ta askatasuna, beharrezkoa ahal duzu lanerako?

– Gizon izateko askatasuna behar ba dugu, gizonak sortzeko duan hau egitez burutu ta egiteratzeko askatasuna da bide bakarra. Noski, literatura, pintura ta musika sail bakoitzak askatasun neurri bereziak ba ditu; gaur musika eta pintura bidez askatasunari kantu bat egitea errazago da itz-bidez egitea baiño. Hori nornaik ba daki emen.

– Ta dirua ere behar da.

– Zertarako?

– Jateko; jateko askatasuna ez ahal da lehenengoa?

– Bai.

– Gure erroko diruak ba ahal du ertiaganako, gogozaletasunerako, sendipenik?

– Penagarria da, baiña tantotik ere ez du.

– Kultura falta zaigu ertiak errien ezieran eta etorrian zer ikusi duen ikusteko.

– Dударik ez.

– Gure erroko aberatsak: inpernuko legatzak? –galde-esan nion.

– Ez dakit an ere nahi izango dituzten.

– Nik ere ez.